

# 2013KO IRAILAREN 28AN ABORTOAREN DESPENALIZAZIOAREN ALDEKO NAZIOARTEKO EGUNA



**DOAKO ABORTU LIBREA  
NIRE GORPUTZA NIREA DA ...  
NIK ERABAKITZEN DUT**



LANAREN KONFEDERAKUNDE NAGUSIA

[www.cgt-lkn.org](http://www.cgt-lkn.org)

[www.rojoynegro.info](http://www.rojoynegro.info)

## IRAILAK 28 ABORTUA DESPENALIZATZEAREN ALDEKO NAZIOARTEKO EGUNA

Alderdi Popularrak, Osasun sexual eta Ugaltzearen legea aldatzeko asmoa du datorren urriaren amaieran. Gallardón ministroak jakitera eman du, eta Kode Penala aldatuko dutela ere iragarri du.

Askatasunez bizi ahal izateko eskubidea etengabe mugatzen digute esparru guztietan: familian, lanean, gizartean... eta sexualitatean.

Gallardonek behin baino gehiagotan iragarri du, adin txikiko betek ezin duela abortatu gurasoen baimenik gabe, eta ondorioz, gogortuko ditu amarentzako gaitz fisiko nahiz psikikoak aurreikusten dituzten kasuen baldintzak.

Gobernu honek, urte luzeetako borrokari esker lortutako txikikeria, Europako legerik atzerakoienean deuseztatu nahi du. Ez dute horren garrantzitsuak diren formakuntzari edo prebentzioari buruz txintik ere esaten.

Osasungintzan, lagundutako ugalketa jadanik erreformatu dute: ezkongabeak edo beste emakume batekin ezkondua dauden emakumeek ezin dute intseminatuak izan, nahitanahiez gizonezko batekin ezkondua egon behar. Orain Osasun Sexual eta Ugalketaren legea aldatu nahi dute. Pixkanaka pixkanaka, APak XXI. Mendeko emakumearen perfila nola moldeatzen duen ikusten ari gara: menpekoea, zintzoa eta kristaua. 60. Hamarkadan egin zuten bezalaxe.

LKNk pertsona guztien askatasunaren aldekoa da, zentzu guztietan. Ezin da inor alde batera utzi, luma duelako edo seme-alaba bat izan zahi duelako ezkondu gabe.

Abortua, haurdunaldia eten nahi duen emakume bati geratzen zaion muturreko aukera da. Aukera pertsonala da, batzuetan konpartitua eta beti mingarria dena. Baina emakumeok amatasuna askatasunez erabaki ahal izatea, gure gorputzaren gain dugun eskubidea da. Inor ez, ez erruduntzat jotzen gaituen Elizak, ezta erreprimitzen gaituen Estatuak ere, seme-alabak erditzera behartu gaitzakete emakume izateagatik eta hori dela hain zuzen ere gure eginkizuna uste izateagatik.

LKNk dei egiten du mozketa hauekin minduta sentitzen den pertsona orori beren gaitzespina azal dezaten, ez bakarrik Abortuaren Legearen aldaketari, baita beren familia eta sexualitate ereduari ere: monoparentala, patriarkala, atzerakioa, emakumeen eta pertsonen gorputzen kontrako biolentzia legitimatzen duena eta sexualitate forma ezberdinak ukatzen dituen.

Irailaren 28an abortua despenalizatzearen aldeko eguna ospatuko da. Munduan zehar egunero baldintzarik gabeko 55mila abortu praktikatzen dira. Hauetatik, 95% garapen bidean dauden herrialdetan, eta zortzi amen heriotzetatik bat eragiten dute.

**Aurreiritzi eta gizarte-ohiturak alde batera utzita erabakitzeko eskubidearen alde, heziketa sexualaren alde.**

**Emakumeon gorputzen eta erabakien kontrako erpresioaren aurka.**

**ABORTU ASKE ETA DOAKOA. ENE GORPUTZA ETA ERABAKIA NIREAK DIRA**